

GETXO UDALERRIKO GIZARTE KOHESIOAN LAN EGITEN DUTEN ERAKUNDEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO 2021EKO DEIALDIA

SARRERA

Getxoko Udala tokiko administrazio publikoa da, herritarren zerbitzutan dagoena, eta honela egiten du bere jardura:

- Herritarren eta gizarte eragileen parte hartzea eta elkarreragina jasoz;
- Beraien eguneroko bizitzan eragina duten oinarrizko beharizanei erantzunez;
- Getxotarrei banakako eta taldeko ongizate maila hobekak lortzen laguntzen dieten bizi baldintzak posible eginez.

Jardura hori herritarren aniztasuna kontuan hartuz ematen da eta arreta berezia eskaintzen zaie gizarte egoeratik, egoera ekonomikoetatik, sexuagatik, adinagatik, jatorriagatik, aniztasun funtzionalagatik eta abarregatik baztertuak dauden kolektiboak.

Gizarte Kohesioko Arloa osatzen dute Gizarte Zerbitzuen eta Komunitate Eskuhartzearen unitateak (boluntarioen promozioa, immigrazioa eta kulturartekotasuna, menpekotasunen prebentzioa, hezkuntza, garapenerako lankidetzak, berdintasuna, gazteria eta zahartze aktiboa).

Egiturazko balio nagusia da berdintasun balioak ikuspegi intersektorial batetik eta udaleko gizarte politiketan aniztasuna aitortuz elkartzen direla sektore politika eta zeharkako politika multzo horren bidez. Gainera, xedea Getxo Herri Hezitzailea bihurtzea da.

Hortaz, oinarri hauetan honako alorren esparruan kokatu daitezkeen aurreko deialdiak batzen eta ordezkatzeko dira: garapenerako lankidetzak, berdintasuna, immigrazioa eta kulturartekotasuna, gazteria eta Gizarte Zerbitzuak, eta hori guztia politika bakoitzak udaletako gizarte politiketan duen ikuspegi lotuagoa sortzeko. Era berean, deialdi honetan modu espezifikoan gehitu dira bestelako sektore alor unibertsal batzuk, besteak beste zahartze aktiboa eta menpekotasunen prebentzioa, eta hezkuntzak balioetan duen zeregina indartu da, izan ere, hezkuntza da Gizarte Kohesioko Arloari lotutako ekintza guztiak barne hartzeko gai den ardatza.

Komunitate esku-hartzea arloko jarduketara **eraldatzailea, kolaboratzailea eta parte-hartzailea** da eta herritarrek, hirugarren sektorea eta erakundeak (udaletxea eta lurraldeko gainerako administrazioak) komunitate aktiboa, inklusiboa eta solidarioa eraikitzeko inplikatzeko xedea du. Komunitate ekintza honelakoa da:

- Parte-hartzailea: pertsonen egiten dien eta pertsonengan eragin nahi duen ekintza da, beraien ahalduzko aktiboa sustatuz.
- Kolaboratzailea: ekintza publikoaren eta gizarte zibilaren auto-antolamenduaren eta hirugarren sektorearen arteko sinergia bilatzen du.
- Eraldatzailea: herritarren edo herritarrei eragiten dieten gizarte egituretan aldaketak egitea bilatzen du.

Gizarte Kohesioko Arloak sustatzen duen prozesuetako bat asoziazionismoa eta boluntariorik dirulaguntza lerroen bitartez bultzatzea da, hala, parte-hartzea eta elkartasuna sustatzeko. Oinarri arautzaile hauen xedea laguntza ekonomikoaren banaketa ezartzea da, eta modu horretan, erakunde interesdun guztien diruz lagundutako programen eraginkortasun handiena lortzeko litzateke eta dirulaguntzen politika gizarte konplexutasunera egokituko litzateke. Horregatik programa horien

helburuak, programok garatu ditzaketen erakundeen ezaugarriak eta eskatzaileentzako baldintzak eta betekizunak zehaztu behar dira.

Koordinazio eta lankidetzak, gizarte ekimenaren promozioa eta baliabideen aprobetxamendu integrala, arrazionala eta eraginkorra aplikatuz, xedea udalerrian gizarte erakundeen presentzia sustatzea, horien funtzionamendua eta indartzea erraztea eta beraien jarduerak mantentzea eta Getxorentzat interesekoak diren proiektuak garatzea da.

1. artikulua: XEDEA.

Oinarrien xedea dirulaguntzen emakida arautzea da, betiere udalaren aurrekontuetako mugak betez; dirulaguntzak izaera juridikoa duten, irabazi asmorik ez duten eta Getxon edo getxotarrei zuzendutako gizarte kohesioko jarduerak egiten dituzten erakundeei zuzenduta daude. Jarduerak honako alorren barne egon beharko dira:

- Sentsibilizazioa eta gizarte eraldaketarako hezkuntza
- Hautzaroa eta gazteria
- Zahartze aktiboa
- Balioetan oinarritutako heziketa
- Mendekotasunak prebenitzea
- Gizarte Zerbitzuak

Edo bestelako zeharkako politiketatik jarduten dutenak:

- Berdintasuna
- Kulturartekotasuna
- Aniztasun funtzionala
- Belaunaldi aniztasuna
- Afektu eta sexu aniztasuna
- Elkartasuna

Modu horretan honakoak lortu nahi dira:

- Udalerrian gizarte kohesio handiagoa sustatzea.
- Udalerrien asoziazionismoa sustatu eta bultzatzea.
- Gizarte Kohesioaren alorrean programak, prestazioak eta jarduerak garatzeko gizarte ekimena bultzatzea.
- Sektore publikoaren eta gizarte erakundeen artean lankidetzak erraztea.

2. artikulua: ARAUBIDE JURIDIKOA.

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa.
- 2004ko osoko bilkuran onetsitako eta 2005eko urtarrilaren 24ko BAO n argitaratutako udal ordenantza.
- Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legea.
- Garapenerako lankidetzako otsailaren 22ko 1/2007 Legea.
- 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuena.

3. artikulua: DATU PERTSONALAK BABESTEIA

Getxoko Udalak, Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorrean (EB 2016/679) eta Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetze aldera, jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak "Erakunde laguntzaileentzako diru-laguntzak" izeneko tratamenduaren parte izango direla. Tratamendu horren arduraduna Getxoko Udala da eta tratamenduaren xedea Getxoko Udalaren eskumeneko gizarte kohesiorako politikekin zerikusia duten dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea da. Bildutako datuak beharrezkoak dira Getxoko Udalari esleitutako botere publikoak baliatzeko eta legezko betebeharrak betetzeko, eta arlo horretan eskumena duten administrazio publikoei jakinarazi ahalko zaizkie. Datuen titularrek euren datuak kontsultatu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea baliatu ahal izango dute, bai eta horien tratamenduaren aurka egin edo mugatu ere. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidali beharko dute Getxoko Udalaren posta helbidera edo datuak@getxo.eus. helbide elektronikora.

4. artikulua: ERAKUNDE XEDEDUNAK.

Dirulaguntzen xededunak izango dira irabazi asmorik ez duten, dagokien erregistro publikoan gutxienez urtebeteko antzinakotasunarekin erregistratuta dauden eta Gizarte Kohesioko jarduerak Getxon eta/edo getxotarrei zuzenduta egiten dituzten erakundeak, elkarteak eta fundazioak (aurrerantzean, erakundeak).

Ezingo dituzte dirulaguntza hauek jaso Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako inguruabarretan dauden erakundeek ezta sexu arrazoiengatiko diskriminazioak gauzatzearren administrazio zehapena edo zehapen penala dutenek ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legea betez ebazpen honetan aurreikusitako laguntzak jasotzeko debekua dutenek.

5. artikulua: DIRULAGUNTZEN LERROAK.

5.1: DIRULAGUNTZEN 1. LERROA: GETXOKO ERAKUNDEAK MANTENTZEA, MARTXAN EGOTEA ETA INDARTZEA

5.1.1- Xedea:

Lerro horren xedea asoziazionismoa sustatzea eta indartzea eta Gizarte Kohesioari lotutako erakunde sare handia sortzeko lan egitea da.

Lerro horretan parte hartu dezakete Getxon gizarte egoitza edo delegazioa duten erakundeek eta aldi berean Getxoko Udalaren erregistroan erregistratuta daudenek.

Lerro honetako dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte gastu hauek:

- Langileen gastuak (nominak eta gizarte segurantzak, aseguruak eta dietak) eta ohiko gastuak (erakundearen egoitza edo delegazioa kokatutako lokalaren alokairua, garbiketa eta hornidurak).
- Erakundea promozionatzeko informazio eta dibulgazio gastuak (publizitatea eta propaganda), hau da, urteko memoriak, eskuliburuak, kartelak, jardunaldiak, web orrialdeak eta sare sozialak.
- Prestakuntza eta boluntarioak erakartzeko gastuak (ikastaroak, mintegiak, eta abar).
- Erakundearen kudeaketa hobetzeko edo bazkideak edo xededunak erakartzea gehitzeko gastuak: antolamenduko hausnarketa estrategikoak, kudeaketa, berdintasun eta/edo komunikazio planak, materialak egitea eta esku-hartzeko baliabide espezifikoak sortzea.

5.1.2- Lerro horretarako **gehienezko kreditua: 111.720 euro**

5.1.3- Emakida araubidea: hainbanaketa

5.1.4- Erakunde bakoitzeko gehienezko zenbatekoa:

3.000 euro erakunde gisa 5 urte edo gehiago erregistratuta dauden eta azken 3 urteetan Getxon gutxienez 5 jardura egin dituzten erakundeentzat. Zenbateko hori **2.500 eurokoa** izango da erakundearen kudeaketa egiten duten udaleko lokal bat esleituta duten erakundeentzat.

1.000 euro erakunde gisa 5 urte baino gutxiago erregistratuta dauden eta Getxon gutxienez jardura bat egin duten erakundeentzat. Zenbateko hori **750 eurokoa** izango da erakundearen kudeaketa egiten duten udaleko lokal bat esleituta duten erakundeentzat.

Gehienezko zenbatekoa mantentze gastuen **% 75** izango litzateke eta beharrezkoa izango da % 100ean egikaritu eta justifikatzea.

5.2: DIRULAGUNTZEN 2. LERROA: GIZARTE KOHESIOAREN ARLOKO INTERESEKO PROIEKTUAK

5.2.1- Xedea:

Lerro horren xedea Gizarte Kohesioari Arlorako interesekoak diren eta erakundeek Getxon edo getxotarrantzat egin nahi dituzten proiektuak bultzatzea eta sustatzea da:

Garapenerako lankidetzak, berdintasuna, immigrazioa eta kulturantzatasuna, gazteria eta gizarte zerbitzuak.

Dirulaguntzen lerro honetan honakoak sartzen dira:

- Gizarte eraldaketarako garapen lankidetzaren eta hezkuntzaren sentsibilizazioari bideratutako jarduerak.
- Ikuspegi feminista argia duten, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten eta indarkeria matxista deuseztatzea xede duten jarduerak edo proiektuak.
- Harreraren, aukera berdintasunaren eta/edo askotariko herritarren arteko topaketa espazioak sortzearen bidez kulturartekotasuna sustatzen duten jarduerak.
- Gazteentzat interesekoak diren jarduerak.
- Herritarren autonomia, babesa eta gizarte inklusioa errazten duten jarduerak.
- Gizarte Zerbitzuak udaleko edo udalaz gaindiko bestelako gizarte politikekin zeharka integratzeko sistema berri bat eraikitzea sustatzen duten eta/edo bestelako alor sektorial unibertsalak -besteak beste zahartze aktiboa eta menpekotasunen prebentzioa- gehitzen dituzten jarduerak.

Ez zaie dirulaguntzarik emango oinarri arautzaile hauen xedearekin bat ez datozen edo beste erakunde publiko batzuen eskumenekoak diren jarduerari.

Lerro honetako dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte gastu hauek:

- Gastu zuzenak (proiektua garatzeko materialak, langileen gastuak, kanpoko kontratazioak, bidaiak eta proiektua gauzatzeko egonaldiak, publizitatea eta itzulpen gastuak).
- Zeharkako gastuak, Getxoko Udalari eskatutako dirulaguntzaren balioaren % 5era arte, gehienez ere.

5.2.2- Azpilarroak:

- a) **Egoitza soziala** edo ordezkari **Getxon** duten eta Getxoko erregistroan inskribatuta dauden erakundeak; horrez gain, **jarduerak** Getxon egin beharko dituzte.

Lerro horretarako **gehienezko kreditua: 105.000 euro**

Emakida araubidea 12. artikuluan ezarritako balorazio irizpideak aplikatzearen ondoriozko **norgehiagoka** izango da.

Dirulaguntzak emateko aurkeztutako eskaerak alderatuko dira, balorazio irizpideekin beraien arteko hurrenkera ezartzeko eta eskuragarri dagoen kredituaren barnean deialdian finkatutako mugarekin bakarrik balioztapen handiena lortu duten erakundeei dirulaguntza adjudikatzen.

Erakunde bakoitzeko gehienezko zenbatekoa: 9.000 euro

Dirulaguntzen zenbatekoak **gutxitu** ahal izango dira guztientzako ehuneko berean, eta hautatutako proiektuetan azken bat gehitu ahal izango da; bertan, eskuragarri dagoen aurrekontu kontsignazioak bakarrik estaldura partziala izango du.

- b) Egoitza soziala edo ordezkaritza Bizkaiko **beste udalerrri** batean duten erakundeak; horien jardueretan gutxienez 5 getxotarrek parte hartu beharko dute edo jarduera Getxon egin beharko da.

Lerro horretarako **gehienezko kreditua: 10.000 euro**

Emakida araubidea hainbanaketa izango da

Erakunde bakoitzeko gehienezko zenbatekoa: 1.000 euro

Gehienezko zenbatekoa aurkeztutako proiektuaren %100 izango da.

6. artikulua: EMAKIDA PROZEDURA.

Dirulaguntzen kudeaketa publizitate, gardentasun, lehia, objektibotasun, berdintasun, ez diskriminazio, eraginkortasun eta efizientzia printzipioekin bat eginez egingo da.

Dirulaguntzen deialdi honetarako erabili daitekeen **gehienezko kreditua 226.720 €** izango da 02000 23100 4810000 partidari lotuta , dirulaguntza lerroen artean banatuta.

Irizpideak betetzen dituzten erakundeek **eskaera bat** aurkeztu ahal izango dute 1. lerroan eta **proiektu bat** 2. lerroan.

Oinarri arautzaile espezifikotetan ezarritako irizpideak aplikatu ondoren, dirulaguntza lerro bietan **soberan geratu daitekeen kreditua** beste lerro bateko beharrak betetzeko erabili ahal izango da.

Diru laguntzaren ordainketa aurrez egingo dira, ekintzak aurrera eramateko behar beharrezkoak direlako.

Gain-finantzaketa:

Deitu diren dirulaguntzak eta beste erakunde publiko edo pribatu batzuek xede berarekin emandakoak bateragarriak izango dira. Ezin da inolaz ere gain-finantzaketarik gertatu, hau da, beste erakunde batzuekin batera emandako diru-zenbatekoa, guztira, ezin daiteke izan jardueraren kostu osoa baino handiagoa. Dirulaguntza bat baino gehiago jasotzearen ondorioz gain-finantzaketa gertatzen bada, erakunde onuradunak Getxoko Udalak eman dion diru-zenbatekoa itzuli beharko du, finantzatu den zenbateko osoaren aldean udalak egin duen ekarpen osoaren proportzio berean.

Ebazpena emateko epea hiru hilabetekoa izango da gehienez, eskabideak aurkezteko finkatutako azken egunetik aurrera zenbatuta. Ebazpena emateko epea amaitzean ez bada berariazko ebazpenik eman, dirulaguntza eskaera ez da onartutaz joko, azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorraren 25. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

Eskariak berriz ere egitea:

Eskariak berriz ere egingo dira **eman beharreko zenbatekoa proiektuaren zenbatekoaren % 75 baino gutxiagokoa bada eta proiektuaren finantzaketa bermatuta ez baldin badago.**

Organo izapidegileak erakundeari jakinaraziko dio 10 egun balioduneko epean proiektua berriz ere idatzi beharko duela aurrekontua doitu eta dirulaguntzari uko egin beharko diola. Berariaz erantzuten ez badu, organo izapidegileak eskaria ezetsiko du.

7. artikulua: ORGANO IZAPIDEGILEA, ORGANO KOLEGIATUA ETA TOKIKO GOBERNU BATZARRA.

Laguntzak emateko **organo izapidegilean** egongo dira Gizarte Kohesioko Arloko arduraduna eta arloko langile teknikoak.

Organo izapidegileak txosten teknikoa egingo du eskatutako jarduerengan duen interesa egiaztatzeko, 12/2008 Legean, 2/2016 Legean eta oinarri arautzaile hauetan ezarritakoan oinarrituz.

Erabaki proposamena organo kolegiatuak igorriko dio Tokiko Gobernu Batzordeari, eta hura honako hauek osatuko dute:

PRESIDENTEA: Alkatea.

BATZORDEKIDEAK:

- Idazkaritza Nagusiko eta Herritarren Seguratasuneko zinegotzia.
- Ekonomia Sustapeneko eta Plangintza, Kudeaketa eta Hirigintza Diziplina eta Udal Eraikinak Arloko zinegotzia.
- Ingurumeneko Hiri Zerbitzuetako eta Ingurumen Kalitateko zinegotzia.
- Idazkari nagusia.
- Kontu-hartzaile nagusia.
- IDAZKARITZA NAGUSIA:
- Idazkaritza nagusiko teknikaria.

Eskabideak ebazteko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra izango da.

8. artikulua: AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, dirulaguntzen datu base nazionalaren bidez, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Oinarriak nahiz eskaera inprimakiak ondorengo web orrian kontsultatu daitezke www.getxo.eus.

Herritarrek zerbitzu publikoak eskuratzeko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera, eskariak administrazio elektronikoko bulegoan aurkeztuko dira: www.getxo.eus . Salbuespen moduan, herritarrei arreta emateko bulegoetan ere jasoko dira (beharrezkoa izango da aurretiaz hitzordua hartzea).

Dokumentazioa aurkeztu ahal da, halaber, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 16.4 artikuluan ezarritako edozein tokitan.

Postetxeko bulegoen bidez aurkezten diren eskaerak gutun-azal ireki batean sartuko dira, postetxeko langile funtzionarioek data jarri eta zigilatu ahal izateko, erregistratu aurretik.

9. artikulua: BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA.

- a) **Eskari normalizatua (I. eranskina).**
- b) Eskariaren ordezkaria den pertsonaren NANaren/AIZren fotokopia.
- c) Entitatearen IFKren fotokopia, entitate juridikoa izanez gero.
- d) Erakundearen estatutuen fotokopia.
- e) Eusko Jaurilaritzako elkartearen erregistroan, udaleko erregistroan edo dagokion erregistroan inskribatuta dagoela justifikatzen duen ziurtagiriaren fotokopia.
- f) **3.000 € baino gehiagoko eskarien** kasuan, Bizkaiko Foru **Ogasunak** edo bestelako foru edo estatuko ogasun publikoak emandako **ziurtagiria** eta **Gizarte Segurantzaren** ziurtagiria, egiaztatzen duena Bizkaiko Foru Aldundiarekiko edo bestelako foru edo estatuko ogasun publikoekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak betetzen dituela. Ziurtagiria ofizioz eskatuko da erakunde eskatzailea horren aurka agertzen ez den bitartean.
- g) Udalak ofizioz egiaztatuko du erakunde eskatzaileak ez duela zerga zorrik berarekin.
- h) 1. lerroan, **erakundeari buruzko datuak (II. eranskina).**
- i) 2. lerroan, **erakundearen proiektua (III. eranskina).**
Proiektua III. eranskineko formatuan aurkeztuko da halaberrez eta ez da 30 orrialde baino gehiagokoa izango (A4, alde batean idatzita, 1,5eko lerro-artearekin eta Arial 12 letra motarekin). Ez dira irakurriko ez ebaluatuko luzera hori gainditzen duten orriak.
- j) Udalak, kasu bakoitzaren arabera, erakunde eskatzaileari dokumentazio osagarria eskatu ahal izango dio.

Eskaera egin aurreko bi urteetan udalaren antzeko dirulaguntza bat jaso duten erakunde eskatzaileek ez dituzte berriro aurkeztu beharko aldaketarik izan ez duten agiriak. Halere, eskaeran, horren berri eman beharko dute.

10. artikulua: DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA.

Emandako dirulaguntzak Dirulaguntzen base nazionalean argitaratuko dira, sektore publikoa arrazionalizatzeari eta administrazioa erreformatzeko beste neurri batzuei buruzko irailaren 16ko 15/2014 Legeak aldatutako Dirulaguntzen Lege Orokorren 20. artikulua betez.

11. artikulua: ERAKUNDEEN BETEBEHARRAK.

Dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Dirulaguntza emandako helburura bideratzea.
- b) Aurreikusitako proiektua edo programa egitearen ondorioz sor litezkeen erantzukizun guztiak bere gain hartu beharko ditu.
- c) Dirulaguntza eman zitzaion programa ez aldatzea Gizarte Kohesioko Arloa alde aurretik ados agertzen ez bada.
- d) Emandako dirulaguntzaren aplikazioa egiaztatzeko eta jarraipena egiteko Gizarte Kohesioko Arloak egoki irizten dien jarduketak onartzea.
- e) Publizitatean eta komunikazio ekintzetan agerraraziko da proiektua, programa edo jarduera Getxoko Udalaren laguntzaz egiten dela (horretarako, kolaboratzailearen epigrafearen azpian logotipoa jarriko da).
- f) Dokumentazio guztian, publizitatean, irudietan eta materialetan hizkuntza ez sexista eta ez diskriminatzailea erabiltzea eta ez dira erabiliko emakumeak diskriminatzen dituzten edo estereotipo sexistak eta/edo arrazistak dituzten irudiak eta berdintasuna eta kulturartekotasuna sustatuko dira.

- g) Dirulaguntza jasoko duen proiektuan edo jardueran genero ikuspegia jasoko da diagnostikoan, helburuetan, jardueretan eta ebaluazioan.
- h) Proiektuari, programari edo jarduerari buruzko publizitatean eta komunikazioan hizkuntza normalizaziorako irizpideak betetzea.

12. artikulua: DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA.

Jasotako dirulaguntza justifikatu egin beharko da.

1. leerroan, justifikazioak aurkezteko epea, gehienez, **2022ko otsailaren 22a** izango da. Horixe izango da emateko azken eguna.

2. leerroan, emakidaren ebazpenetik aurrera zenbatzen hasita dirulaguntza **12 hilabetean egikaritu** beharko da eta jarduera bukatzen denetik aurrera zenbatzen hasita gehienez ere **hilabetean justifikatu** beharko da.

Aurkeztutako proiektuaren **% 100 justifikatu beharko da.**

Dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a) **1. leerroan eta 2. leerroan** dirulaguntzaren justifikazio ekonomikoko memoria (**IV. eranskina**); ez da beharrezkoa izango eranskinean zerrendatutako gastuen jatorrizko ziurtagiriak aurkeztea.
- b) **2. leerroan**, garatutako jardueraren memoria xehea (**V. eranskina**).
- c) Diruz lagundutako jarduera edo ekitaldia dela-eta argitaratu diren eskuliburu, kartel, liburu, bideo, euskarri digital (CDak, DVDak, pendriveak, eta abar) eta antzekoen ale bana.

Jatorrizko ziurtagiriak gorde egin beharko dira, izan ere, Getxoko Udalak erakunde hauei egokitzat jotzen dituen justifikazio dokumentuak eska diezazkieke, dirulaguntza behar bezala aplikatu dela argi gelditzeko.

Justifikazio kontuan aipatu gastuen frogagiri bezala onartuko dira merkataritzaren trafiko juridikoan baliozkoak diren dokumentuak eta, beraz, erosketak, erakundeek 4/2013 FORU DEKRETUAK, urtarilaren 22koak, fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Arautegia onartzen duenak (2013ko urtarilaren 29ko BAO), xedatutakoa bete beharko dute fakturen eta faktura sinplifikatuen edukiarri dagokionez (4/2003 FDren 6. eta 7. artikulua).

Ez badu diruz lagundutako proiektuaren justifikazioa adierazitako epean aurkezten, emandako dirulaguntza itzultzeko prozedura izapidetuko da.

Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 42. Artikulua arabera, itzulketa-prozeduraren ebazpenak administrazio-bidea amaituko du

Erakunde onuradunak jaso duen laguntza osorik edo zati batean itzuli ahalko du borondatez, horixe egiteko eskatu aurretik. Eskaera ebatzi egingo da eta, gero, erakundeari jakinaraziko zaio, ordainketa egiteko modua eta epea adierazita.

Hori guztia, uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 90. artikulua betez; horren bidez onetsi zen Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren Araudia.

Jarduera edozein erakunde publiko edo pribaturen beste laguntza edo baliabide batzuekin batera finantzatu bada, justifikazioaren zati bezala, funtsak diruz lagundutako jarduerari aplikatzen zaiela egiaztatu beharko da, jatorria azaltzeaz gain.

13. artikulua: BALORAZIO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa 100 puntukoa izango da. Proiektuek gutxienez 50 puntu eskuratu beharko dituzte balorazio irizpideetan.

Balorazio irizpideak:

1. Proiektuaren kalitate teknikoa: guztira 38 puntu

- Helburuen, jardueren eta emaitzen arteko koherentzia (gehienez ere 12 puntu)
- Proiektuaren argitasuna eta zehaztasuna (gehienez 3 puntu)
- Proiektuaren metodologia (gehienez 8 puntu)
 - Proiektua talde jasotzaileari nola egokitzen zaion eta proiektuaren testuingurua (gehienez 3 puntu)
 - Bitartekoak eta eskakizun teknikoak (langileak, materialak) (Gehienez 3 puntu)
 - IKTbak gehitzea (gehienez 2 puntu)
- Jarraipen sistema eta adierazleak gehitzea (gehienez 8 puntu)
- Gizarte Kohesioko Arloarekin komunikatzeko eta koordinatzeko sistema (gehienez 2 puntu)
- Berrikuntza. Dirulaguntza lerro honen xedea lortzeko jardura berritzaileak (gehienez 2 puntu)
- Euskara erabiltzea (gehienez 3 puntu)
 - Jardueraren bat euskaraz egitea (2 puntu)
 - Paisaia linguistikoa kontuan hartzea (1 puntu)

2. Bideragarritasuna: guztira 17 puntu

- Beste erakunde batzuen baterako finantzaketa edo autofinantzaketa (gehienez 3 puntu)
 - % 10-19 artean: 1 puntu
 - % 20-29 artean: 2 puntu
 - % 30 edo gehiago: 3 puntu
- Erakunde bideragarritasuna (gehienez 2 puntu)
Erakunde eredugarri batek proiektuan parte hartzea
- Iraunkortasuna (gehienez 2 puntu)
Taldea xededunekin egiten den lana etorkizunean mantentzeko neurriak.
- Proiektua garatzeko kontratatutako pertsonak (gehienez 2 puntu)
- Beste esperientzia edo aurreko azterketa batzuekin kontrastatzea (gehienez 3 puntu)
- Finantza bideragarritasuna: partiden banakapena, pro forma fakturak gehitzea (gehienez 5 puntu)

3. Onuradunak: gehienez 5 puntu

- Proiektuan edo jardueretan aurreikusitako onuradun kopurua (gehienez 3 puntu)
- Talde hartzaileak edo erreferentziako erakundeak (gehienez 2 puntu)

4. Ibilbidea eta sarean lan egitea: gehienez 10 puntu

- Azken bost urteetan Getxon garapenerako lankidetzan, berdintasunean, immigrazioan eta kulturartekotasunean, gazterian edo gizarte zerbitzuetan proiektu bat edo jarduerak gauzatu dituen erakundea (gehienez 4 puntu)

- Proiektua erakunde biren edo gehiagoren artean gauzatzea (gehienez 4 puntu)
- Erakundeak azken bi urteetan udalerriko sareetan, foroetan edo kontseiluetan parte hartzea (gehienez 2 puntu)

5. Zeharkakotasuna: guztira 30 puntu

GENERO IKUSPEGIA (gehienez 12 puntu)

Proiektua/jarduera:

- Emakumeen eta LGBTI kolektiboaren ahalduntze feminista pertsonala, kolektiboa eta politikoa sustatzen ditu. Bereziki, desberdintasun baldintza edo egoera potentzialetan egon daitezkeen emakumeena: pobrezia, zaugarritasuna eta gizarte bazterketa
- Herritarrei zuzendutako indarkeria matxistaren aurkako informazioa, sensibilizazioa, prebentzioa eta jarduketak gauzatzen ditu.
- Emakumeen eskubideak, emakumeen mugimenduaren historia eta pentsamendu feministarena eta emakumeen erreferentziak eta genealogiak sortzeko proiektuak
- Kontuan hartzen du ikuspegi interseksionala identitate eta kategoria ezberdinak gehituz, besteak beste adina, sexu eta genero identitatea, etnia, jatorria, migratzaileak/errefuxiatuak izatea, klasea, aniztasun funtzionala, pobrezia, zaugarritasuna eta gizarte bazterketa.
- Zaintzen eta kontziliazioaren hornidura eta jasotze eredia eta erantzunkidetasun eredia bidezkoagoak eta jasangarriagoak izatea sustatzen du.
- Jarduera emakumeek emakumeentzat egiten dute. Elkarte eskatzaileak berdintasun eta genero alorretan ibilbidea, jarraikortasuna, egonkortasuna eta dedikazioa ditu.
- Erakundearen estatutuetan jasota dago jarduketaren xedea eta eremua emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala sustatzea dela.
- Proiektuaren edo jardueraren fase guztietan sexua/generoa aldagaia modu sistematikoan gehitzen da: diseinuan, plangintzan, egikaritzean, jarraipenean eta ebaluazioan.
- Gizonen berdintasunaren aldeko sensibilizazioa, prestakuntza eta inplikazioa sustatzen ditu.
- Pertsonak jardueran parte hartzea eta kontziliazioa errazten ditu: kontziliazio neurriak, eskuragarritasun bermea, eta abar. Familiako eta laneko bizitza eta bizitza pertsonala kontziliatzeko baliabideak, neurriak edo zerbitzuak ezartzen ditu.
- Jarduera Getxon indarrean dagoen berdintasun planarekin lerrokatuta dago.

GIZARTE IKUSPEGIA (gehienez 6 puntu)

Proiektua/jarduera:

- Belaunaldi arteko ikuspegia lantzen du.
- Gazteen partaidetza eta inplikazioa sustatzen ditu.
- Xededunen autonomia pertsonala sustatzen du.
- Desberdintasun egoerarik ez sortzeko prebentzioan lan egiten du.
- Zaugarritasun egoeran dauden pertsonak babesteko ekintzak sustatzen ditu.
- Zaugarritasun egoeran dauden kolektiboen gizarteratzea sustatzen du.

KULTURARTEKO IKUSPEGIA (gehienez 6 puntu)

Proiektua/jarduera:

- Udalerriko kultur aniztasuna kontuan hartzen du
- Errealitate horri lotutako neurri espezifikoak proposatzen ditu (analisi, diseinu, egikaritze edo ebaluazio fasean)
- Interakzio positiboa eta elkarrekin egoteko espazioak sustatzen ditu
- Estereotipo negatiboak, zurrumurrak eta migratzaileen aurkako aurreiritziak deuseztatzeko estrategiak garatzen ditu.
- Kulturalki anitza den biztanleria ahalduz sustatzen du.
- Kultura anitzeko lantalde teknikoa eta/edo aniztasuna kudeatzen prestatuak dauden eta kulturarteko gaitasunak eta antzekoak dituzten langileak ditu.

ESKUBIDEEN ETA ELKARTASUNAREN IKUSPEGIA (gehienez 6 puntu)

Proiektua/jarduera:

- Berariaz zerrendatzen ditu giza eskubideen urratzearekin jorratzen diren arazoak.
- Ekintza zuzenduta dagoen populazioaren eskubideen gaitasunen arrakala aztertzen du, prozesua zein unetan dagoen adierazten du (ezagutu, hausnartu, erantzukizuna hartu, konpromisoa sortu) eta herritarren eraikuntza prozesurako xede zehatza finkatzen du.
- Giza eskubideen eskagarritasun juridikoa sustatzen du balio eta printzipioetatik haratago.
- Identifikazioan gaiaren tokiko azterketa eta azterketa orokorra egiten du: hau da, testuingurua eta dimentsio orokorra jorratzen ditu.
- Plangintzaren ardatzean ezberdintasun orokorrak azaltzen dituzten eta elkartasuna sustatzen duten jarduerak jasotzen ditu.
- Lantalde teknikoko kideek prestakuntza jaso dute garapenerako lankidetzan, lankidetzaren deszentralizatuan, Agenda 2030ean, eta abarrean.